

BICICLETAS Y PEATONES TOMARÁN EL CENTRO DE DERIO GRACIAS A LA ZAP

Pág.4

Presupuestos participativos 2026

La ciudadanía podrá votar
sus propuestas favoritas
del 16 al 30 de septiembre

Pág.2

Elkarrizketa

Aitziber Raya:

*"Oso inspiratzailea egiten
zaidan literatura-genero
bat errealismo magikoa da:
egunerokotasunaren
eta fantastikoaren
arteko nahasketa!"*

6. eta 7. orriak

Uda 2025

Alaitasuna eta
festa giroa nagusi!

9. orria



El Ayuntamiento recoge 61 propuestas ciudadanas en el proceso de presupuestos participativos 2026

16 | La renovación del Polideportivo, la instalación de cubiertas en espacios deportivos y parques infantiles, la mejora del mobiliario urbano y el impulso a la movilidad sostenible destacan entre las propuestas más repetidas.

El 12 de septiembre se publicará el listado de proyectos que pasarán a la fase de votación dentro del proceso de presupuestos participativos 2026. Estos proyectos, que han superado la fase de análisis de viabilidad, estarán disponibles tanto en el tablón de anuncios del Ayuntamiento como en la web municipal.

La ciudadanía podrá **votar** sus propuestas favoritas del **16 al 30 de septiembre**, a través de una encuesta online habilitada en la web del Ayuntamiento. Las personas que lo necesiten podrán acudir al Servicio de Atención Ciudadana Gertuan para recibir apoyo en el proceso de votación.

Será el **15 de octubre** cuando se publiquen los resultados de la votación, tanto en la web como

en el tablón municipal. Desde el Ayuntamiento se anima a vecinos y vecinas a que haya una alta participación para conseguir unos presupuestos municipales más representativos.



‘Lehiatila Ibiltaria’, urrian bueltan

17 | Urritik aurrera, Derioko Udalak berriz jarriko du martxan ‘Lehiatila Ibiltaria’ ekimena. Herritarren entzute aktiboan eta parte-hartzean oinarritutako programa honek aukera ematen die bizilagunei beren proposamenak, kezkak edo zalantzak zuzenean alkateari eta gobernu taldeari helarazteko.


Orain arte, esperientzia hau **Ganbe, Errekatxue-ta, Aldekone, Bestorrene, Uribe, Entrecalles, San Miguel** eta **Erdialdeko** auzoetako bizilagunekin partekatu da, topaketa ireki eta gertuko

bidez, non herritarrek beren iritziak eta proposamenak adierazi dituzten.

Udalak herriko auzoetan barrena jarraituko du hurrengo hilabeteetan. Hala, urrian herriko landa guneean bizi diren auzolagunekin batzartuko da, zuzeneko elkarrizketak mantentzeko eta eremu horietako errealitateetara egokitutako proposamenak eta iradokizunak jasotzeko.

“Lehiatila Ibiltaria ez da soilik entzute ariketa bat; komunitate sendo eta parte-hartzaile bat eraikitzeko bidea ere bada. Auzo bakoitzean jasotzen ditugun ekarpenek Derio hobetoago bat eraikitzen laguntzen digute, elkarrizketaren eta lankidetzaren bidez”

Esther Apraiz, Derioko alkatea.



Derio ampliará el polideportivo para dar respuesta a las demandas de la ciudadanía

10 | El Ayuntamiento ampliará el hall del polideportivo municipal como primera fase de una ambiciosa
11 | reforma recogida en el **Plan Estratégico de Deporte 2025-2028**. Se trata de una actuación clave que
3 | permitirá reorganizar los espacios actuales y habilitar nuevas zonas para usos diversos, respondiendo así
a las distintas peticiones recogidas durante el proceso participativo llevado a cabo en los últimos meses.

Este proceso ha permitido que la ciudadanía haya podido compartir su visión y propuestas a través de una encuesta. Las aportaciones recibidas han sido fundamentales para elaborar un plan con mirada integral y de futuro, ajustado a las necesidades de usuarias y usuarios.

El plan se estructura en **6 ejes fundamentales** –servicio de deportes, instalaciones, práctica deportiva, operadores privados, clubes y centros escolares– y cuenta con una dotación superior a los **1,6 millones de euros**, lo que representa **más del 13% del presupuesto municipal**. Una cifra que refleja la prioridad que tiene el deporte para el equipo de gobierno. Esta hoja de ruta refuerza el compromiso recogido en el Plan de Legislatura 2023-2027.

Próximamente se celebrará una charla abierta para presentar el plan y recoger impresiones de la ciudadanía.



Irailaren 1etik 14ra zabalduko da 2025-2026 kirol ikastaroetan izena emateko epea

Udaleko Kirol Sailak irailaren 1etik 14ra irekiko du 2025-2026 kirol ikastaroetan izena emateko epea (abonatu zein ez abonatuentzat). Aurten ere, Derioko Udal Kiroldegiak **ur eta lurrezko jarduera fisiko gidatuen programazio zabala izango du, helduentzat zein txikientzat.**

Eskaintzari dagokionez, Derioko Udal Kiroldegiak jarduera gidatuen programa mantendu egingo du, hala nola igeriketa ikastaroak, aquagym eta igeriketa eskola martxan izango dira. Horiez gain, pilates, zumba, yogalates, adinekoentzako gimnasia, aerogap, TRX, full body, spinning, body hit, high training... bezalako ikastaroak ere eskainiko dira, besteak beste. Ikastaroen funtzionamendu onak eta kirolarien gogobetetasunak ikasturte honetan aldaketa gutxi egotea eragin dute. Nobedade nagusia, astelehenean eta asteazkenan goizez pilates saioak eskaintzea izan da.

Izen-ematea www.derio.eus helbidean egin behar da. **Abonatuak lehenetasuna izango dute plazen zozketan** eta Kirol Txartelarekin ere abantailak izango dituzte (info+ 944 540 159). Zerrendak DUK-eko iragarkien taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira.

KIROL EKINTZAK

**URRIA 25
26 EKAINA**

En septiembre arrancará el pintado de ciclocalles en la zona ZAP

13 | Durante la segunda quincena de septiembre
 11 | comenzarán los trabajos de pintado de ciclocalles del centro de Derio que forman parte
 3 | de la **ZAP (Zona Ambientalmente Pacificada)**, con el objetivo de visibilizar y reforzar la presencia de la bicicleta y transformar el centro en un espacio amable donde se prioricen peatones y ciclistas, limitando la velocidad del tráfico motorizado.

Aprovechamos para recordar qué es la ZAP: una zona del centro urbano que promueve una movilidad sostenible, dando preferencia a la bicicleta y a las y los peatones.

En los últimos meses se han instalado nueve “puertas” de entrada a esta zona preferente, las cuales se ubican en pasos de peatones clave, mediante franjas azules continuas que abarcan toda la calzada y se extienden unos 5 metros antes y después de los pasos. Estas actuaciones se complementan con la mejora y señalización de los bidegorris ya existentes, reforzando la seguridad y la usabilidad de la red ciclista.

Todo ello se enmarca en el Plan Derio Ciclable 2023+, y refleja el compromiso del Ayuntamiento con un modelo de movilidad sostenible y centrado en las personas.



Zeroetxetik Garaira ere LED argiztapen berria

Udalerrriaren argiteria publikoa %100ean LED teknologiarara aldatu-
 tutadagoen arren, hirigunean zein landa-eremuetako bizitegi-gune eta in-
 dustrialdeetan, Udalak auzotarren behar eta eskaera zehatzei erantzuten jarraitzen
 du, bereziki landa-eremuetan segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Hala, lau metroko altuera duten bost luminaria berri jarri dira Santiago etorbidearen eta Garairako sarbidearen arteko bidean; hau da, Arteaga auzotik San Kristobalera iristeko jatorrizko bidean. Jarduera honetara 20.131 euro bideratu dira.



Derioko eguzki-mapa, laster herritar guztien eskura

13 | Udalak eguzki-mapa interaktibo bat jarriko
 12 | du martxan datozen asteetan, derioztar guz-
 7 | tiei beren etxebizitzan, enpresen edo merka-
 100 | taritza-lokalen potentzial **fotovoltaikoari buruzko informazio pertsonalizatua** eskaintzeko. Plataforma digital eta berritzaile hau ImpactE enpresa teknologikoarekin lankidetzan garatu da, adimen artifizialean eta analisi energetikoan espezializatutako konpainia ait-zindariarekin.

Europa mailako punta-puntako teknologian oinarritzen den tresna honek udalerriko **teilatu guztiak** aztertzen ditu, eta modu argi eta garbian erakusten du **zenbat eguzki-panel** instalatu ahal izango lirakekeen eraikin bakoitzean, zenbatesitako **energia-errendimendua**, gutxi gorabeherako beharrezko **inbertsioa**, aurreikusitako urteko aurrezpen ekonomikoa eta instalazio horrek ekarriko lukeen **CO₂ isurien murrizketa**.

Informazio hori guztia doan eskuratu ahal da webgune publiko batean, interesdun orori kontsulta zuzena errazteko. Udalaren helburua herritarrek ahalduzkoa da, herri-ingurunean iraunkortasuna erraztuko duten erabakiak hartu ahal izan ditzaten.

"Jarduera honekin, Deriok beste urrats bat emango du gardentasunarekin, klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta energia garbiekin duen konpromisoan, derioztarrei aldaketarekin bat egiteko tresna praktikoa eta fidagarria eskainiz"

Esther Apraiz, Derioko alkatea.





“Oso inspiratzailea egiten zaidan literatura-genero bat errealismo magikoa da: egunerokotasunaren eta fantastikoaren arteko nahasketa!”

Aitziber Raya, kolorez eta emozioz egindako ilustrazioa Deriotik mundura

5 | Aitziber Raya derioztar gazteak ilustrazioaren bidez istorioak kontatzea du ogibide eta pasio. 4 | Azkenaldian Orkestra Zooragarria albumarekin “Etxepare Saria” (Nafarroako 16 toki-entitatek elkarlanean antolatzen dute sariketa, euskarazko sorkuntza sustatzeko) jaso izanak haren izena ezagun bihurtu badu ere, Aitziberren bidea aspaldi hasi zen, irudiaren eta emozioen arteko lotura berezia eraikitzen.

Gotzone Butron idazlearekin batera egindako Orkestra Zooragarria lanarekin “Etxepare Saria” irabazi duzue. Zorionak! Zer suposatzen du sari honek? Zeintzuk izan dira proiektuaren nondik norakoak?

Sari hau oso garrantzitsua izan da guretzat: ibilbide luzea egin dugulako eta iaz binakako programan elkar ezagutu genuelako. Galtzagorri elkarteak antolatutako programa honetan album ilustratua sustatzen da, eta sari honetan parte hartzera animatu gintuzten. Iaz ere aurkeztu ginen, eta ez genuen saririk lortu, baina lan horretan ondo

moldatu ginen eta sortzen jarraitzea erabaki genuen. Beraz, sari hau gure ahaleginen emaitza da.

Aurreko proiektua aurkeztu ondoren, Orkestra Zooragarria album ilustratuan lanean hastea erabaki genuen. Gotzonek jada idatzia zuen ipuina, eta lehen aldiz irakurri nuenean oso dibertigarria eta interesgarria iruditu zitzaidan. Orduan hasi ginen lanean, eta urtebete igaro ondoren amaitzea lortu genuen. Oso pozik gaude emaitzarekin.

Noiz eta nola piztu zitzaizun ilustrazioaren mundurako zaletasuna? Gogoratzen dituzu lehen marrazki horiek?

Txikitatik marraztu izan dut. Hasieran beste jolas bat zen niretzat: pertsonaiak eta istorioak sortzen nituen, eta ondo gogoratzen dut pertsonaia berberak erabiliz egiten nuen komiki bat. Denborarekin, joko hori pixkanaka-pixkanaka hobby bihurtu zen. Sorkuntza eta Diseinuko Gradua ikasi eta nire lanbidea hau zela erabaki nuen arte.

Zure lanetan emozioa eta irudimena elkarlotzen dira. Sormen prozesuan, zer da gehien inspiratzen zaituen elementua? Lan bati ekiteko orduan, prozedura batzuk dituzu buruan ala lan bakoitzak bere bidea hartzen du?

Normalean metodologia bera jarraitzen dut, betiere proiektu bakoitzera egokituz. Kasu honetan, lehen aipatu dudan bezala, ipuina idatzita zegoen. Beraz, lehen urratsa irakurtzea eta islatu nahi nituen kontzeptuetan pentsatzen hastea izan zen.

Ondoren, mota guztietako erreferentziak bilatu nituen: arkitektura, jantziak, eszenografiak, kolore-paletak... Eta lehenengo zirriborroak sortu nituen. Kasu honetan, antzokietako eszenografietan inspiratu nintzen, eta esentzia hori orrialde bakoitzean transmititu nahi izan nuen.

Behin estetika definituta, storyboard-a egin nuen, orrialde guztien zirriborroak eginez, konposizioak eta irakurtzeko erritmoa argiago ikusteko. Azkenik, dena garbira pasatu nuen, horrek eraman zidan lan gehien.

Zein dira zure erreferente nagusiak? Beste ilustratzaile batzuk, arte mota jakin batzuk, bestelako sormen iturriak? Badakigu master bat amaitu duzula orain de la gutxi...

Nire erreferente estetikoak aldatu egiten dira unean nagoen testuinguruaren arabera. Hala ere, denboran zehar inspirazio iturri izan ditudan ilustratzaileak hauek dira: Alba Ballesta González, Gastón Pacheco eta Sergio García Sánchez.

Horrez gain, oso inspiratzailea egiten zaidan literatura-genero bat errealismo magikoa da: egunerokotasunaren eta fantastikoaren arteko nahasketa. Bereziki gustuko ditut Isabel Allende eta Gabriel García Márquez-en liburuak.

Zein da, zuretzat, haurrei zuzendutako liburu batean ilustrazioek izan behar duten funtzioa?

Nire ustez, haurrentzako ipuinetako ilustrazioek testuarekin batera joan behar dute, informazioa gehituz eta kontatzen ari den istorioa osatuz. Gure errealitatetik urrun dauden munduak beste modu batean irudikatzen laguntzen dute, eta haurrei irakurketan laguntzen diete: bai entretenigarriagoak izan daitezten, bai hobeto uler ditzaten. Txikieneztat sormen, irudimen eta ezagutzarako iturri dira.

Amaitzeko, zer proiektu edo amets profesional dituzu buruan etorkizun hurbilerako? Non ikusten duzu zure burua urte batzuetan?

Gaur egun, niretzat eta nire familiarentzat oso garrantzitsua den liburu bat argitaratzeko prozesuan nago, "Las cosas se hacen con cariño" izenekoa. Nire amonaren errezetak biltzen dituen sukaldaritzaliburu da, baina ez dira soilik errezetak, gerraosteko amonaren bizitza, historia eta Malagatik Deriora egindako bidaia ere azaltzen baititu.

Epe luzera, ilustrazio-proiektu gehiagotan parte hartu nahi nuke, hala nola testuliburuetan, album ilustratuetan, ez-fikziozko liburuetan... Une honetan, Gotzone eta biok oso ilusionatuta gaude proiektu berrietan pentsatzen.



Últimos días para solicitar las ayudas al alquiler para jóvenes

El próximo **30 de septiembre** finaliza el plazo para solicitar las ayudas al alquiler que el Ayuntamiento de Derio pone a disposición de jóvenes de entre 18 y 35 años. Esta convocatoria tiene como objetivo facilitar el acceso a la vivienda y apoyar el proceso de emancipación juvenil.

La línea de ayudas, dotada con un presupuesto total de 20.000 euros, permite cubrir hasta el 50% del importe del alquiler mensual, con un máximo de 300 euros por persona beneficiaria, en función de sus ingresos.

Las solicitudes pueden tramitarse online, a través de la web municipal www.derio.eus, o de forma presencial en el Servicio de Atención a la Ciudadanía Gertuan. Las bases completas y toda la información están disponibles en la web.



Abierta la convocatoria de ayudas municipales para formación artística, deportiva y de idiomas en el curso 2024-2025

El Ayuntamiento ha abierto una nueva convocatoria de subvenciones dirigidas a sufragar parte de los gastos derivados de estudios realizados durante el curso 2024-2025. Se podrán solicitar ayudas para cursos de idiomas en el extranjero, formación en música o danza, así como para la participación en actividades deportivas.

El importe de la ayuda alcanzará hasta el **50% del gasto justificado**, con un máximo de **500 euros por persona**, siempre que no se supere el crédito previsto en cada partida. En el caso del deporte, las ayudas para viajes y dietas podrán superar esa cantidad si existe disponibilidad presupuestaria. Si el número de solicitudes supera el presupuesto asignado, se repartirá el total disponible de forma proporcional entre todas las personas beneficiarias.

El Ayuntamiento ha reservado para esta convocatoria:

- **4.000 euros** para idiomas en el extranjero
- **9.000 euros** para estudios de música y danza
- **2.500 euros** en becas al deporte

El plazo para presentar solicitudes finalizará el **10 de octubre de 2025**. Toda la información está disponible en www.derio.eus.



Festaz betetako uda!

- 🏠 Uda honetan ere Derioko auzo, kale eta plazak festa giroz eta alaitasunez bete dira, herriko jai eta
- 🏡 jardueraz gozatzeko aukera bikaina eskainiz. Adin guztietako herritarrek izan dute parte hartzeko eta
- 🍷 ondo pasatzeko tartea, eguraldi onarekin eta giro ederrean.



Santiago, Santa Ana, San Inazio eta San Esteban jaiak ohiko moduan ospatu dira, musika, kirola, herri bazkariak eta beste hainbat ekitaldirekin. Ludogazte eta Gaztelekuko gazteek ere irteerak izan dituzte. Eta uztailaren 6an “Busti zaitez” ekimen solidarioa ere izan genuen, besteak beste.

Hemen dituzue uda honetako une zoragarri horien zenbait argazki.



Abierto el plazo de inscripción a los talleres municipales 2025-2026 del 5 al 15 de septiembre

10 | El Ayuntamiento pone en marcha una nueva edición de los Talleres Municipales, con una completa y variada oferta formativa y creativa dirigida a personas mayores de 16 años. La programación incluye **10 disciplinas** distintas que fomentan el aprendizaje, la creatividad, el bienestar y la convivencia.

Además de los cursos anuales, a lo largo del año se irán sumando cursos monográficos y talleres puntuales dirigidos a todas las franjas de edad. Una oferta viva y en constante crecimiento, pensada para responder a los intereses y necesidades del municipio.

Las inscripciones se podrán realizar en www.derio.eus, en el cajero ciudadano ubicado en el DUK o presencialmente en Kultur Birika. Las personas con dificultades para inscribirse contarán con el personal de Kultur Birika para ayudarles.

MANUALIDADES	1 MARTES	10:30 - 13:00
	2 MARTES	16:00 - 18:30
	3 MARTES	18:30 - 21:00
	4 MIÉRCOLES	18:30 - 21:00
DIBUJO	1 LUNES	18:00 - 20:30
	2 JUEVES	18:00 - 20:30
PATCHWORK	1 MIÉRCOLES	17:30 - 20:00
CERÁMICA	1 LUNES	16:45-19:15
	2 LUNES	19:15 - 21:45
JOYERÍA	1 LUNES	19:30 - 21:30
BAILES DE SALÓN	1 MIÉRCOLES	19:00 - 20:30
BAILES EN LÍNEA	3 LUNES	18:45-20:15
	LUNES	20:15-21:45
LITERATURA Y ESCRITURA	1 LUNES	18:30 - 20:30
COSTURA	1 MARTES	18:30 - 21:00
	2 VIERNES	17:30 - 20:00
COCINA	1 MARTES	10:00 - 12:00
	2 MARTES	19:00 - 21:00
	3 MIÉRCOLES	19:00 - 21:00

Las plazas serán limitadas y se asignarán por sorteo. Los cursos comenzarán el 1 de octubre y estarán en marcha hasta junio. Están dirigidas, principalmente, a personas empadronadas en Derio y tienen un coste de **80 €** cada curso.

Eskolarako bidea lagun artean egiteko prest!

11 | Ikasturte berria laster hasiko da, eta harekin batera bueltan izango da “Eskolara Lagunekaz” egitasmoa. Aurten ere, Udalak ikasle eta familien artean oinez eskolara joateko ohitura bultzatu nahi du, haur eta nerabeen autonomia sustatzeko eta bizimodu osasungarriago baten alde egiteko.

Helburu nagusien artean daude ikasleen arduraren pertsonala indartzea eta jardueren fisikoaren eguneroko errutinan txertatzea. Bide batez, autoen erabilera murriztu eta herriko ingurumena eta segurtasuna hobetzen dira.

2020az geroztik, Derio Haurren Hiria Sarearen parte da, eta konpromiso sendoa du gazteen ikuspegia udal politiketan txertatzeko eta haien ahotsa entzunarazteko.



Aste Europarra: Mugikortasun aktiboaren alde Derion

13 | Irailaren 16tik 22ra ospatuko den **Europako Mu-**
 11 | **gikortasun Astea** dela eta, Deriok, urtero bezala,
 3 | zenbait jarduera antolatuko ditu herritarrak oinez,
 100 | bizikletaz edo patinetaz mugitzera animatzeko.

Irailaren 17ko goizean, ibilaldi osasungarria egingo da adinekoekin, Nagusien Etxea abiapuntu eta helmuga izanik. Era berean, **irailaren 21ean**, ostirala, **bizikletaldia** egingo da herriko kaleetan zehar, mugikortasun aktiboaren aldeko aldarria eginez.

Ekimen hauek, eta aste honen baitan antolatu daitezken bestelako jarduerak, aukera paregabea eskaintzen digute kontzientzia hartzeko eta ohitura jasangarriak sustatzeko. Herritar guztiak animatzen ditugu parte hartzera eta Derio osasuntsuago baten alde egitera.



El 19 de septiembre celebramos en Derio el “Bizkaia Gara Eguna” con humor

10 | El “Bizkaia Gara Eguna” de este año se centra en
 11 | promover la cohesión social y combatir la soledad no deseada a través de experiencias compartidas como el teatro, el cine o la música. Se
 3 | trata de una llamada a la ciudadanía para mejorar Bizkaia desde la colaboración colectiva y atendiendo a las necesidades del entorno. Diferentes municipios se han sumado a esta propuesta, y Derio formará parte de ella.

Así, el jueves 19 de septiembre, el actor Txemi Parra ofrecerá en Gurea Aretoa su monólogo “Niño a los 40”, una comedia que reflexiona con humor sobre la madurez y los dilemas cotidianos. La cita será a las 20:00 horas.

La entrada será gratuita, y se anima a toda la ciudadanía a acudir y compartir un rato de risa y conexión. Porque la cultura también es una herramienta para cuidarnos.



Agenda

IRAILA - SEPTIEMBRE

*OHARRA:

Hilaren hasieran udal aldizkaria eta agenda kulturala posta elektronikoz jaso nahi duen herritar orok kultura@derio.eus helbidera mezu elektronikoa bidaliz eska dezake.

*AVISO:

Todo aquel vecino o vecina que desee recibir, a primeros de mes, vía correo electrónico la revista municipal junto con la agenda cultural, puede solicitarlo enviando un email a kultura@derio.eus

UNTZA MENDI TALDEA

Irailak 7 de septiembre:

Monte Andasto, 822m, Bizkaia.
Salida 8:00h. Nagusien Etxea.

Irailak 14 de septiembre:

Basuraleza, en Derio. Salida a las 10:00h en la Herriko Plaza.

Irailak 21 de septiembre:

Betsaide Eguna, Untzilla (Aramaio), Araba. Salida 7:30h. Nagusien Etxea. OBLIGATORIO APUNTARSE. Viaje en bus. Más info: www.untzamendi.biz

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK 2026 // PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2026

12 de septiembre:

publicación de los proyectos viables que se someterán a votación en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal www.derio.eus

Del 16 al 30 de septiembre:

periodo de votación de proyectos o propuestas. Se realizará mediante encuesta a través de la web municipal. Además, para aquellas personas que quieran participar pero que no cuentan con los conocimientos o medios necesarios, el Ayuntamiento pondrá a su disposición al personal de la Oficina de Atención Ciudadana, Gertuan, y de Kultur Birika para facilitarles su participación.

15 de octubre:

publicación de los resultados de la votación, tanto en la web como en el tablón municipal.

UDAKO ZINEMA / CINE DE VERANO

Irailak 5 de septiembre:

"Inside out 2", a las 22:00h, en las canchas deportivas cubiertas)

KIROL EKINTZAK / CURSOS DEPORTIVOS

Irailak 1-14 de septiembre:

abierto el plazo de inscripciones en www.derio.eus

UDAL TAILERRAK / TALLERES MUNICIPALES

Irailak 5-15 de septiembre:

abierto el plazo de inscripciones en www.derio.eus, en el cajero ciudadano ubicado en el DUK o presencialmente en Kultur Birika.

EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA / SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

Irailak 17 de septiembre:

ruta saludable con personas mayores por la mañana. Salida y llegada en Nagusien Etxea.

Irailak 21 de septiembre:

marcha en bicicleta por la mañana por las calles de Derio + hamaiketako saludable.

BIZKAIA GARA EGUNA

Irailak 19 de septiembre:

el actor Txemi Parra ofrecerá a partir de las 20:00h en Gurea Aretoa su monólogo "Niño a los 40", una comedia que reflexiona con humor sobre la madurez y los dilemas cotidianos.

FIESTAS SAN MIGUEL JAIAK

Irailak 26, 27, 28 eta urriak 3, 4, 5, 26, 27, 28 de septiembre y 3, 4, 5 de octubre.

Egizu bat Derioko Udalaren WHATSAPP KANALAREkin! / ¡Únete al CANAL de WHATSAPP del Ayuntamiento de Derio!

1. Eskaneatu QR Kodea / Escanea el código QR
2. Egin klik "SEGUIR" botoian / Haz click en SEGUIR
3. AKTBATU jakinarazpenen KANPAIA nobedaderik ez galtzeko. / ACTIVA la CAMPANA de notificaciones para no perderte ninguna novedad.



Orain aldizkaria oso-osorik euskaraz edo gaztelera irakurri dezakezu! / Ahora puedes consultar el Beitu íntegramente en euskera o castellano!

Euskaraz:



En castellano:

